

## HAUSNARKETA ESTRATEGIKOAREN AURRETIKO FASEA JARRAIPEN BATZORDEA

DATA: 2016/07/11; ORDUA: 19:00-21:00

LEKUA: UDALETXEA

### UDALA:

Joseba Ormazabal (EAJ)

María Lasa (EH BILDU)

Patxi Amantegi (EAJ)

Igor Ezenarro (EH BILDU)

Begoña Tolosa (EAJ)

Iñigo Cabièces (PODEMOS)

Peio Etxabe (EH BILDU)

Iñigo Muñoz (teknikaria).

LAGUNTZA TEKNIKOA: Ana López eta Eider Larrañaga (Enea)

## GAI ZERRENDAA

1. PROIEKTUAREN FASEAK ETA EGUTEGIA
2. MAHAI SEKTORIALEN BILERETAKO BALANTZEA
3. MAHAI SEKTORIALEN EMAITZA NAGUSIAK AZALTZEA ETA LANKIDETZA MAHAIAREN LEHENENGO EKARPENAK AURKEZTEA
4. BESTEAK

## LABURPENA

### 1. PROIEKTUAREN FASEAK ETA EGUTEGIA

Eneako Eider-ek hartzen du hitza proiektuaren fase nagusiak zeintzuk diren gogoratzeko, fase bakoitzaren helburu nagusiak azalduz. Nahiz eta bilera hau aurreikusita ez egon, Laguntza Teknikotik egokitzen jo da fase honetarako politikarien ekarpenak jaso eta bideratzeko espazio bezala.

Hau azaldu ondoren, epe motzera begira hurrengo pausuak zeintzuk izango diren azaltzen dira. Laburbilduz, behin diagnostiko fasea hau amaitzen denean, 2030. urtera begirako elementu estrategikoen lanketa hasiko da, zeinak diagnostikoaren ondorioak abiapuntu bezala hartuko dituen. Hau dela eta, garrantzi berezia ematen zaio egiten ari den argazki partekatu honen atal bakoitzaren ondorio nagusiak adosteari.

Honekin lotuta, bertaratutakoei hurrengo egunean fitxen zirriborroa bidaliko zaiela azaltzen zaie. Fitxak nola egituratzen diren azaltzen da eta atenzioa batez ere azkeneko atalean jartzea

eskatzen da, non momentuz teknikariek Lankidetzeta Mahaian egindako ekarpenak bakarrik jaso diren. Atal hori mahai sektorialetan aipaturako ideei nagusiekin eta politikariek egindako ekarpenekin osatu nahi dela azaltzen da, berau fase honen adostasun elementu nagusia izango dela gogoratuz.

Ariketa hau egiteko uztailak 20ko epea ematen da eta EHBildutik gaian sakonean sartzeko egun gutxi direla aipatzen da. Laguntza Teknikoak egutegia betetzearen garrantzia azpimarratzen du, kontutan izanik Udalak urtea amaitu baino lehen Plana izan nahi duela. Egundak hori mantentzea adosten da.

## **2. MAHAI SEKTORIALEN BILERETAKO BALANTZEA**

### **NOLAKO IZAN DA PARTE HARTZEA?**

Eneako Ana López-ek hartzen du hitza mahai sektorialeko bileren inguruko datu batzuk azaltzeko. Guztira 46 lagun ezberdinek parte hartu dutela esaten da, emakume eta gizonen artean nahiko orekatuta egon dela azalduz. Aldiz, adinaren arabera azterketak gazte (<25) eta adinekoen (>65) parte hartzea nahiko baxua izan dela azaltzen da. Hurrengo faseetara begira, adin tarte hauetako herritarrak prozesura hurbildu beharko liratekeela aipatzen da, hau erronka garrantzitsuenetarikoa bat dela azalduz.

Aurrez-aurreko saioez gain, jardunaldien ospatzearekin batera, kalean herritarren ekarpenak jasotzeko "stand" edo gunea jarri da baita ere. Honetaz gain, Udaleko web gunean ekarpenak egiteko gunea aktibatuta da eta zenbait pertsonak posta elektronikoen bidez helarazi dute beraien ikuspegia.

## **3. MAHAI SEKTORIALEN EMAITZA NAGUSIAK AZALTZEA ETA LANKIDETZETA MAHAIAREN LEHENENGO EKARPENAK AURKEZTEA**

### **PERTSONAK**

Pertsonak atalaren inguruan mahai sektorialetan izandako eztabaidaren elementu nagusiak azaltzen dira, lau ataletan banatuta: hiri-espazioak eta aisialdirako eskaintza, 3. adina eta gazteak, emakumeak eta egoera larrietan dauden herritarrak. Ondoren, eta eskema berdina jarraituz, Lankidetzeta Mahaian jasotako ekarpenak azaltzen dira baita ere.

Jarraian, honen inguruan sortutako zalantzak eta ekarpenak azaltzen dira:

- Igor Ezenarrok (EH BILDU), gazteen inguruan ekarpenak azaldu izatea harrizkoa dela aipatzen du, kontutan izanik euren parte-hartzea minimoa izan dela.
- Honen harira bertaraturako guztiak gazteak prozesura hurbiltzeko ahalegin berezia egin behar denarekin ados daude.

## **HEZKUNTZA ETA KULTURA**

Atal honetan mahai sektorialetan izandako eztabaidaren elementu nagusiak azaltzen dira baita ere, ondoko gaien arabera banatuta: kultur ekipamenduak, kultur eskaintza, kirol ereduak, euskararen erabilera eta hezkuntza. Jarraian, gai honekin lotuta Lankidetzeta Mahaian jasotako ekarpenak ere mahai gainean jartzen dira.

Atal honen inguruan ondoko eztabaida sortzen da:

- Bertaratutakoek etorkinak udalerriko eskoletan nola banatzen diren gaiaren inguruan hasi dira. Datuek diotenez, Samaniego Eskola Publikoak etorkin gehien jasotzen dituen zentroa dela aipatzen da eta, beste zentroekin konparatuz, dagoeneko desoreka bat dagoela aipatzen da. Pertzepzio desberdinak mahai gainean jartzen dira baina guztion iritziz, gai honi heldu beharko litzaioke, udalaz gaindiko erakundeekin elkarlanean, banaketa orekatu bat bilatze aldera.

## **INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA**

Ingurumena eta lurralde antolamenduaren atalari dagokionez, aurrekoetan bezala, Laguntza Teknikoak mahai sektorialetan jasotako ideei nagusiak azaltzen ditu, ondoren, Lankidetzeta Mahaian jasotako ekarpenekin osatuz. Ondorengo gaien arabera antolatzen da aurkezpena: hirigintza antolamendua, errekaen aprobetxamendua, mugikortasuna eta energia eta hondakinak.

Jarraian, gai hauen inguruan sortutako eztabaidaren laburpena azaltzen da:

- Peio Etxabek (EH BILDU) San Esteban eremuaren garapenaren inguruan ez direla adostasun batera iritsiko aurreratzen du. Jarraian eta mahai sektorialetan jasotakoan oinarrituz, herritarrek eremu berriak okupatzeko beharrik ikusten ez dutela aipatu dute eta Udalak herritarren esandakoari kasu egin beharko litzaiokeela aipatzen du.
- Honen inguruan EAJko eta EH BILDUko ordezkarien arteko eztabaida sortu da, eremu horretako garapen ereduaren inguruan. Aurreko bileran aipatu zen bezala, HAPOaren eta proiektu honen arteko lerrokatzearen beharra mahai gainean jartzen da.
- Iñigo Cabieces (PODEMOS) eta EH BILDUko ordezkarien ustez herritarren esanak kontutan hartu behar direla aipatzen dute eta Udalari honen inguruko konpromisoa eskatzen diote eta gai honen inguruan Udalaren posizionamendu argiago bat beharrezkoa dela aipatzen dute.

## **EKONOMIA**

Azkenik, ekonomia atalaren inguruan herritarrek eta, ondoren, Lankidetzeta Mahaiko kideek aipatutakoaren laburpena aurkezten da ondoko gai nagusien inguruan banatuta: sektore ekonomikoak eta ekintzaitetasuna, enplegua eta turismo eredia.

Gai hauen inguruan ondoko ekarpenak jasotzen dira:

- Lankidetzza Mahaian industria sektoreari buruz aipatutakoaren aurrean, bertaratutakoek Tolosaren egungo industria sektoreak papergintzarekiko lotura sendoa mantentzen duela argitzen dute.
- Kontsumo-ereduei buruz Lankidetzza Mahaian zerbait aipatu al den galdetzen da. Honen harira, Iñigo Muñoz-ek lur bankuen inguruko hausnarketa baten beharra aipatzen du, gai hau azokekin eta kontsumo erduekin lotuz. Hau guztia beste hainbat gaiekin zerikusia ere duela aipatzen du, horien artean: ikastoletako eta zahar egoitzen jangela erdueak, energia eta klima aldaketa, etab.

#### 4. BESTEAK

EH Bildutik ondoko aipamenak egin dira baita ere:

- Prozesuan sor daitezkeen ezadostasunak konpontzeko bideak oraindik ez direla landu aipatzen dute.

Eztabaida honen inguruan, Laguntza Teknikoak ondoko azalpena ematen du:

*Oraindik ez da ezadostasunik egon eta, aurreko bileran aipatu zen bezala, gai zehatzen inguruko talkak azaltzen direnean, hauek aztertu eta konpontzeko bidea landuko da. Hala ere, prozesuaren helburu nagusia zein den gogoratzen da, adostasunak lantzea eta sorkuntza partekatua bultzatzea, hain zuzen. Honen harira, herritarren, politikarien eta teknikarien ikuspuntuak orekatu egin beharko direla gogoratzen da.*

- Hainbat adierazleei buruzko proiektzioak izatea interesgarria izango litzateke, ekintzak proposatzeko orduan hauek modu kuantitatiboan estimatutako beharrei erantzuna eman diezaieten.

Proposamen honen inguruan, Laguntza Teknikoak ondoko azalpena ematen du:

*Laguntza Teknikoak egindako proposamenak (eta udalak onartutakoa) ez du proiektzioak egitea aurreikusten. Bestalde, beste motatako proiektuetan (Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak, adibidez) egin ohi dela aipatzen da baina, kasu honetan, proiektu honek TA21eko ekintza planen berrikuspenerako metodologia oinarritzat hartzen du, zeinak ez du lan hori barne hartzen.*

Bertaratutakoei eskerrak emanez, bilerari amaiera ematen zaio.